

## MUSIKA-EKINTZETAKO ZENTROA

### NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Erabilera askotako zentroa, musika-jarduerak egin eta horietarako prestatzeko.

### MERKATU-DATUAK

Arte, kultura eta aisialdiaren munduak aukera asko eskaintzen dizkie ekintzaileei, zeren eta Espainian, Europako iparraldeko beste herrialde batzuen aldean atzeratuta ibili arren, kultur industriak negozio-kopuru garrantzitsua sortzen baitu. Musikak bakarrik 54.091.089.394 € mugitzen du urtean, Autore eta Editoreen Elkarte Orokorraren arabera, eta arlo honetan sor daitezkeen negozioek oso aukera zabala eskaintzen dute: prestakuntza-akademiak, tresnak saldu edo alokatzeko dendak, hi-fi kateak, euskarriak merkaturatzera bideratutako negozioak, apalak, CD-ak, musika-liburuak, abestalde eta abeslarien merchandising-a, entseguetarako lokalak emango dituen enpresa bat sortzea, zuzeneko musika, kontzertuak edo/eta beste jarduera musikal batzuk antolatu eta kontratatzea, diskoak grabatzeko konpainia txikiak...

“Emprendedores” aldizkariak emaniko Dataautor txostenaren zifren arabera, aukerako sektore gisa agertzen da musika, azkeneko urteotan gure herrialdeko laugarren industria garrantzitsuenen bihurtu baita, 800.000 lagun ingururi lana emanez eta barne-produktu gordinari batez beste %4,5eko ekarpena eginez zuzenean.

Musika-prestakuntzarekiko interesa ere gehituz doa; autonomia erkidego eta hiri guztietan daude musikako goi-ikastegiak, eta hauek dute baimena dagokion titulazioa emateko. EAEko musika-eskolen sarea ere nabarmen gehitu da azken urteotan.

Musika-eskola nahitaezko hezkuntzako ikastetxe gehienetan sartu da, eta horrek gazteen interesa pizten du musikarekiko, eta ondorioz gehitu egiten da eskolaz kanpo prestatzeko eskaera.

### ENPRESA-PLANA

#### Marketin-plana

##### □ *Zerbitzua*

Musika-jardueretarako zentroak hainbat zerbitzu eskaini behar ditu: musika eta musika-tresnen inguruko prestakuntza eta ikaskuntza, entseguetarako lokalak alokatzea, eta maketak grabatzea... baina beste zerbitzu batzuetara ere zabal daiteke: ikaskuntzarako tresnak alokatzera, adibidez.

##### □ *Sustapena*

Sustapena segmentatu egin behar da zerbitzu-mota bakoitzerako. Prestakuntza-arloa tokian tokiko ikastetxeen bidez ezagutaraz daiteke, edo tokiko prentsan

(egunkarian, irratian...) jarritako iragarkien bidez. Gelak alokatu eta maketak grabatzeko zerbitzuetarako, difusio-bide espezializatuagoetara jotzea aholkatzen da: aldizkari tematiko, gaztetxe, gazte-elkarte eta aisialdiko elkarteetara.

### **Plan Operatiboa**

#### □ *Lokala*

Lokal zabala behar da, 150 m<sup>2</sup> baino gehiagokoa, erabat hots-gabetua, eta zatikatua, eskainiko diren zerbitzuak banatzeko.

#### □ *Ekipamendua*

Ekipamendu nagusia musika-tresnak eta grabazio-gela dira. Hasieran bi piano behar dira, eta perkusio-tresnak ere bai. Pianoa musika ikasteko erabiltzen da orokorrean (tonalitateak, erritmoa...), eta bera jotzen ikasteko ere bai, noski. Tresnak alokatu ere egiten baditu zentroak, aipaturikoa baino ugaritasun handiagoa izan behar du, noski, eta hari-tresnak ere sortu behar dira (biolinak, gitarrak...). Grabazio-gelak beharrezko tresneria guztia izan behar du (mahai akustikoa, soinua...).

### **Giza baliabideen plana**

Musika-jardueratarako zentroa abian jartzeko gutxienez behar den pertsona-kopurua bi profesionalakoa da (irakasle bat tresna nagusi bakoitzeko eta grabatzen ere dakiena) eta administrari bat, lanaldi erdiarekin, ordutegiak koordinatu eta alokatzeak kudeatuko lituzkeena. Ikasle-kopurua gehitu ahala, lan-taldea ere handituz doa. Egungo joera talde murriztuak sortzea da, 10 ikasle baino gutxiagokoak.

### **Inbertsio-plana**

Hasierako inbertsio nagusia lokala egokitu eta hots-gabetzeak eragiten du, eta horri tresnak erostea gehitu behar zaio. Gutxi gorabehera jota, hasierako inbertsioa 60.000 € ingurukoa izan daiteke.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

<http://www.lanbide.net>

### **Intereseko beste datu batzuk**

**Ingurunea:** Hiritarra.

**Prestakuntza:** Ezinbestekoa da, gutxienez, erdi-mailako musika-prestakuntza izatea, eta gomendagarria goi-mailako prestakuntza.

## Administrazio-izapideak

- *Izapide orokorrak*

IAE: 952.1

CNAE: 80422

- *Izapide espezifikoak*

Lokalen hots-gabetzeari eta dezibelioen neurketari buruzkoak.

## **IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK**

- *Eskaintzaren aukera ireki adin guztietara*

Musika-jardueretarako zentroa adin askotako taldeak hartzeko planteatu behar da, haurrengandik hasi eta, eskola-adinekoak tartean direla, helduentzako eskaintzarekin bukatzeko. Oro har, denbora gutxiago eskatzen da, baina zentrorako joateko egun gehiago.

- *Metodologia berritzaileak erabiltzea*

Musika ikasteko metodologiak bilakaera nabarmena izan du azken urteotan, eta karrera musikal batera zuzendutako prestakuntza izatetik aisialdi eta entretenimendu gisako jarduera bezala musika-jakintza lortzera bideratuagoa den beste ikuspegi batera igaro da. Horretarako, musika-prestakuntzako metodologiak, ohiko solfeo eta piano-karrera baino arinagoak, garatu dira arrakastaz. Suzuki, Wytack eta beste batzuk gero eta erabiliagoak dira, metodo tradizionalaren gainetik.

- *Dakigunari gaurkotuta eustea*

Honelako negozio batean arrakasta izan nahi bada, dakiguna gaurkotuta mantentzea garrantzitsua da, eta aukera asko dauzkan bidea da musikako beste zentro eta akademia batzuekin esperientziak trukitzea, entzunaldiak antolatuz eta ikasleak zentrotik atereaz. Musikako goi-eskolek prestakuntza iraunkorreko ikastaro asko eskaintzen dituzte musikako profesionalentzat.

## **HELBIDE INTERESGARRIAK**

<http://musikabi.com>

<http://www.musikene.net>

<http://www.lydianroad.com>

<http://www.losmusicos.com>

<http://www.real-conserv-madrid.es>

<http://novedadesenred.com/v2/pages>

<http://geocities.com/bilaun/musikaeskola>

<http://www.conservatoriovitoria.com>